

Otsailaren 8a betiko iltzatuta geratuko zaio Eukene Larraiteri: zilarrezko domina lortu zuen pistako Europako Txapelketan *scratch* proban. Oroitzapen «polita» du, baina zalantza bat geratzen zaio tolosarrari: «Gurpilak ondo izan banitu, zer gertatuko zen?». Ez zituen ondo puztuta.

Pistan «beste pauso bat» eman du, eta orain Glasgown jokatu den Munduko Txapelketan lehiatuko da, gaurtik abuztuaren 13ra. Scratchean eta Omniumean arituko da. Madisonean, ordea, ez; ez bai-

tute sailkatzea lortu. Olinpiar Jokoei begira, Larrarterentzat Eskozian lortzen duena «oso garrantzitsua» izango da, baina horren ondotik, oraindik baditu beste aukera batzuk.

Alemanian jokatu zen Europako Txapelketan, maiatz bukaeran, min hartu zenuen sorbaldan. Zer moduz zaude?

Bost bat aste pasatu dira sorbaldan hautsi nuenetik, eta pixkanaka joan naiz. Lehen hamar-hamabost egunetan geldirik egon nintzen eta ahalik eta azkarren arrabolaren gainean jarri nintzen. Hasieran ezin nuen besoa eskulekuan ezarri, orduan sistema bat asmatu nuen goma ba-

tzuekin, sorbaldan eskulekuan guztiz ez finkatzeko. Gerora, esan zidatenean hezurra ondo zegoela, errepidera atera naiz, eta orain errehabilitazio lana egiten ari naiz. Mugikortasun guztia ez dut, min ematen dit batzuetan, baina egia da bizikleta gainean ez didala eragozten pedalei gogor ematea; beraz, pozik.

Zilarra lortu zenuenetik denbora pasa da. Orain izango zenuen astia gelditzeko eta pentsatzeko zer lortu zenuen.

Beti imajinatzen nuen Europako Txapelketan zilarra lortu eta gero dena desberdin ikusiko nuela: zilar bat, pisua kentzen duzu, helburu handi bat

lortu duzu... Baina dena oso azkar joan zen. Europako Txapelketa eta gero, Munduko Kopak etorri ziren. Sailkatzeko probetan galbahe oso gogor bat pasa behar zen gero korritu ahal izateko, eta hiru txanda ziren. Bidaia luzeak ere bai; Indonesia, Kairo eta Kanada. Ez da Europa, ez da etxetik gertu. Gainera, sailkatzeko lehen txanda ez nuen pasatu, eta hurrengo bietan presio handia nuen: sailkapena lortu behar nuen bai edo bai. Eta horretaz guztiaz gain, unibertsitatean nengoen, eta betiko gorabeherak. Europako Txapelketa hori, zilar hori, ez nuen guztiz dastatu, ez nintzen geratu eta ez nuen disfru-

tatu. Etxean egon nintzen egun gutxietan elkarriketa batzuk egin nituen, lagunekin eta familiarekin pixka bat ospatu nuen, baina gutxi. Orain lesioarekin pixka bat gelditu naiz, patxadaz hartu dut. Eta pixka bat barneratu dut.

Nola gogoratzen duzu eguna?

Jartzen naiz pentsatzen eta atera baino lehen hotelean zaude, zu zure buruarekin lasai, motxila prestatzen... Eta anekdota bat da, baina nire nezeserrean errimela eta makillaje pixka bat ikusi nuen, eta esan nuen: «Imajinatu podiuma duzula...». Baina pentsatu nuen: «Zer esaten duzu, Eukene?», eta hor utzi nuen. Eta gero podiumera joan nintzenean esan nuen: «Begira, errimela ez daukat» [barrez].

Scratchean erasotzera atera nintzen, eta saiatzera. Baina gurgilean arazoekin hasi nintzen, atera nintzen bezain laster bi gurpilak hustuta zeudela igartzen nuen. Mekanikoei saiatu nintzen esaten ea zer arazo zegoen, eta neure buruari esaten nion: «Gurpilak ez daude ondo puztuta». Horrek arreta galtzea eragiten du, baina ezin izan nuen bizikleta aldatu lasterketa oso mugituta hasi zelako. Gainera, hori ez da ohikoena gure scratch probetan; hasieran erritmo bat egoten da, lasaiagoa, baina horrela tokatu zen, eta erabaki oso azkar bat hartu behar izan nuen: «Jarraituko dut horrela edo ez?» Hasieran arreta erabat galdu nuen, eta esan nuen: «Horrela jarraituko duzu eta kito». Eta erabakia ona izan zen; ez dakizu bestela zer pasatuko zen, baina planari eutsi nion eta aurrera egin nuen.

Orain oroitzapen polita dut, baina atsekabe puntu hori dut. Gurpilak ondo izan banitu, zer



«Batzuetan nahikoa da zerbait lortzeko, pertsona batek zuregan sinistea eta konfiantza izatea»

gertatuko zen? Aurkaria baino indar gehiago ari nintzen uzten... Orain ematen du zilarra-ekin konformatu egin naizela, eta inola ere ez. Kontua da banekiela nire egoera zein zen, eta helmugara iristen banintzen... asko! Baina pena ere ematen dit.

Adibidez, Maria Martins portugaldarrak [lehen a egin zuenak] eta biok asko ezagutzen dugu elkar, urte mordoa daramagu bata bestearen aurka, eta justu kontrako ezaugarriak ditugu. Bera ni baino azkarragoa da. Duela aste batzuk Portugalen izan ziren txapelketa batzuetan, berari aurre egiten nion erasotzean, eta berak niri, esprintean. Orduan, esprint hori baino lehen eraso jo nezakeen, baina bizikletaren baldintzek ez zidaten utzi. Badaukat pena puntu hori, ez baitakizu inoiz maillot hori gertuago edukiko duzu.

Bigarren egin zenuen, eta sekulakoa izan zen, baina urrea hain gertu egonda normala da hori pentsatzea.

Bai, baina hori orain hotzean esaten dizut. Momentuan gogoratzen naiz entrenatzailearen [Emaitz Izaguirre] bila joan nintzela ero baten moduan, uste nuelako behean zegoela, pelousean [belodromo-ko erdiko gunea], eta azkenean ikusleen artean zegoen. Hala-ko batean ikusi nuenean, ez dut inoiz ahaztuko berarekin eduki nuen besarkada.

Gauza asko pasatu ditugu elkarrekin, hasieratik nago berarekin, eta lan asko egin dugu, ez digute inoiz ezer oparitu. Nire barrenean banekien entrenatzen nuela eta gauzak gogor egiten nituela egunen batean hau lortzeko. Hori alde batetik, baina bestetik, agian bera izan da pertsona bakarra,

nire familiarekin batera, sinistea zuena nik hori lortuko nuela; eta batzuetan nahikoa da pertsona batek zuregan sinistea eta konfiantza izatea. Gogoratzen naiz negar egin nuela eta malkoak atera zitzaizkidala, baina gero esan nuen: «Podiumean irribarre handi batekin aterako naiz».

Zer esan zizun entrenatzaileak?

Ezer ez, nik orain galdetzen diot eta esaten dit: «Banekien egun batean egingo zenuela». Bera oso pozik ikusi nuen eta dena oso azkar zihoan, baina gogoratzen naiz podiuma lasterketa bukatu eta ordu erdira zela. Orduan, mugikorra hartu nuen eta etxera deika hasi nintzen. Amari deitu nion eta bat-batean bideodeian amonarekin zegoen, eta biak negarrez, ni ere negarrez... Sekulakoa izan zen, oraindik negarra egingo dut. Etxera deitu nuenean aitarekin ere hitz egin nuen, builaka zegoen [barrez].

Gero jartzen naiz pentsatzen beraiek nola bizituko zuten lasterketa; emozio askokoa izan zen, ez zekiten iritsiko nintzen edo ez nintzen iritsiko... Nik gero barrez esaten nien: «Zer? Gaizki pasa duzue?». Oso polita izan zen.

Scratch-a Jokoetarako puntuagarria ez den arren, lortutakoak esperantza emango dizu horiei begira, ezta?

Bai, ez naiz inoiz bere buruarengan sekulako konfiantza duen pertsona bat izan. Horrez gain, selekzio batean zaudela zeina ez baiten Italia bat, arrakasta handia duena eta dominak binaka lortzen dituen. Orduan, hor ere ez da berdina Italia nola sartzen den konfiantza osoarekin belodromo-ko edo zu nola sartzen zaren.

Beti konfiantza hori lantzen aritu naiz. Zilarrak emozional-ki denerako ematen dizu konfiantza. Baina gauza bat da Olinpikoak diren probetan lehiatzea edo Olinpikoak ez direnetan. Olinpikoak ez direnetan gehiago arriska dezakezu, eta Olinpikoak direnetan, nahiz eta Omniumean nahi nuen emaitza ez lortu, esan daiteke ez zela izan sekulako hutsa. Sailkatzeko aukerekin jarraitzen dut.

Nola zoaz puntuen aldetik?

Gai honekin ez naiz erotzen. Duela gutxi bukatu dut unibertsitatea eta pentsatzen dudana azken gauza da puntue- na. Nire ondoan pertsona bat dut lan hori egiten didana eta lan asko kentzen dit. Esaten dit: «Hemen indartsu joan», eta pedalei gogor eragiten diet eta kito. Gaur egun bada- kit Olinpiar Jokoetarako bar-ruan izango nintzatekeela, baina oraindik Munduko Txapelketa bat geratzen da. Zenbatgarren postuan egin behar dut 200etik? Ez da horrela, azkenean, beste ziklisten emaitzen arabera ere ba- da. Munduko Txapelketara goaz ahalik eta hoberen eta aurrean egitera, eta uste dut azkena egin ezean edo ez bu- katu ezean, oraindik aukerak izango nituzkeela sailkatzeko. Hori eta gero Europako Txapelketa bat geratzen da, lehengo urtekoarekin alderatuta, hobetu nezakeena, eta gero beste hiru Munduko Kopa. Oraindik bidea geratzen da, Munduko Txapelketa oso inportantea da; bizirik jarraitzen duzu edo ez, baina horren ondoren badaude beste aukera batzuk.

Zein izango da Munduko Txapelketarako helburua?

EUKENE LARRARTE

EUROPAKO PISTAKO TXAPELDUNORDEA

Orain dela bost hilabete Eukene Larrartek (Tolosa, 1998) zilarrezko domina lortu zuen pistako Europako Txapelketan (Suitzan).

Momentuan ez zuen «guztiz dastatu»; orain, «patxadaz hartzeko» denbora izan du. Gaurtik, Glasgown jokatu-ko den Munduko Txapelketa du begiz jota, eta urrunera begira, Olinpiar Jokoak.

Zuriñe IGLESIAS SARASOLA

Helburuak ezin du zenbaki bat izan. Hamargarren egitea ez dago zure esku, beste 23 dudelako topera joango direnak. Helburua Omniuma da, horrek emango dizkit puntuak Olinpiar Jokoetarako. Scratchean ere parte hartuko dut, denbora asko daramadalako lehiatu gabe lesiotik. Hor saiatuko naiz Europako Txapelketako taktika bera jarraitzen, eta Omniumean oraindik puntu hori falta zait prestakuntza aldetik. Orain egonaldi batera joango naiz Portugalera eta hor neurtuko ditut nire indarrak non dauden, eta horren arabera, Omniuma planteatuko dugu ahalik eta erregularraren eta aurreen egiteko, eta hortik aurrera gure kalkulagailua aterako dugu. Baina helburuak ez du izan behar; «goazen egitera Txekiar Errepublika baino aurrerago». Ez.

Pistan ez bezala, errepidean ez duzu zorte askorik izan.

Urtea ondo hasi nuen; Valenzia-ko Vueltako etapa batean 11. egitea lortu nuen. Niretzako oso emaitza ona da, sekulako maila baitzegoen. Urtea oso zaila izan da; pistak indar handia kentzen zidan, eta unibertsitateak ere bai. Arazo fisikoak ere izan ditut; estresagatik tripetako arazoak izaten hasi nintzen eta maiatzean errepidean Espainiako Vuelta, Burgosekoa eta Itzulia korritu nituen, eta ez nintzen batere ondo sentitu. Itzulian eta Vueltan erori egin nintzen. Erorikoen bolada txarra izan dut, lehengo astean egin nuen proba bat tripetakoa eta esan zidaten birus bat nuela, eta horren guztia- ren arazoa zein zen aurkitu dut. Tripak ez baldin badi-tuzu ondo, gorputza ere ez dago ondo. Urte honetan izan dut emaitzarik politena, baina bes-



Jon URBE | FOKU

«Ematen du zilarrarekin konformatu egin naizela, eta inola ere ez. Kontua da banekiela nire egoera zein zen, eta helmugara iristen banintzen... asko! Baina pena ere ematen dit»



te aldea ere bizitu dut. Errepidean ez dut zortea izan; ez ditut izan ez sentsazio onak ezta emaitzak ere.

Pena eman zizun Itzulia ez amaitu izanak?

Bai, handia. Azkenean, profesional mailako tropele- ra salto egin dut eta etxeko lasterketa asko ez ditut korritu. Lehen Euskaldun Torneoetan edo Espainiako Kopan lasterketa asko egiten nituen, baina orain gero eta gutxiago. Itzulian, hirugarren etapa Donostian zen, Jaizkibelen, Hernanin... Inguru horiek oso ondo ezagutzen di-

tut, eta gogo- a nuen etxean korritzeko eta disfrutatzeko. Baina bigarren etapan erorikoa izan nuen, eta gainera, bu- ruan. Etxera joatea erabaki ge- nuen. Hortik aurrera, errepideko denboraldia pixka bat goitik beherakoa izan da.

Itzuli handietan, nabari da tropelean alde handia dagoe- la txirrindularien artean.

Bai, aurreko batean entrena- tzen hitz egin nuen hori txirrindulariak diren nire lagune- kin; Usoarekin [Ostolaza], Naiarekin [Amondarain], Idoiarekin [Eraso]. Eta esaten

nien: «Neskak, aldaketa guztia bizitzen ari gara». Hasi gine- nean ez zegoen aukera profesio- nala izateko, eta orain nire hiru lagun horiek Laboral Kut- xan profesionalak dira eta soldata bat dute. Hori lehen ez zegoen; orain Joane Somarri- bak zer esaten du?

Orain ziklista on bat ia mili- oi bateko soldatara iristen da, eta horrek prestakuntza on bat izango du; aldiz, oraindik gu- txieneko batzuetara iristen ez garen beste batzuk ere bagau- de. Horrek ekartzen du alde handi hori. Tropelean batez ere kantitatea falta da. Ez da ez

dagoela, baizik eta neska gehiagori baldintza hobeak eman behar zaizkiela; talentua badago. World Tourrean ere zer ari da gertatzen? Egutegia gero eta zabalagoa dela. Ia lehenengo urtetik, talde asko sei txirrindularirekin beha- rrean bostekin hasten ziren. Ziklista multzoak hamabikoak dira. Bi lesionatzen zaizkizu, beste bat gaixotu, eta zenbate- kin bikoiztu dezakezu lasterke- ta? Ezin duzu, eta taldeetan ere diru gehiago behar da; eta pix- kana ari da sartzen. Dena bate- ra ari da etortzen; laguntza oro ona da, uzten ari garen arras-

toa ere bai, baina orain dena berriz ondo jarri behar da.

Hurrengo urtera begira UCIk baldintza batzuk jarriko ditu taldeek gutxieneko batzuk bete ditzaten.

Bai, iritzi desberdinak izan ditut gai horrekin. Kontua da hurrengo urtean Espainiako UCIko taldea izateko, bigarren mailakoei gutxieneko batzuk exijituko zaizkiela: soldata bat izatea, talde teknikoan zuzendariek eta mekanikoek soldata bat izatea, eta dena horrela. Orduan, UCI maila Kontinentaleko zazpi talde baldin badaude Espainian, uste dut batak bakarrik beteko dituela baldintza horiek. Zuk atera kontuak: ia 50 txirrindulari gera gaitezke talde gabe bat-batean. Alde batetik, iruditzen zait beharrezkoa den neurri bat dela, eta hori egiten dela profesionalizatzeko bide horretan. Baina beste alde batetik, neurri hauek jartzen dituzte, baina ez dute ezer egiten laguntzeko. Txirrindulari asko geratuko gara, eta ni barne, hurrengo urtean agian talde rik gabe, eta ez dakigu ezer. Bere alde ona eta txarra ditu.

Italiako Giroari ez dakit kalte egiten dion gizonatzekoen Tourrekin bat egiteak...

Hemen errealitatea hau da: jendeari oraindik telebista piztu eta emakumeen kirola ikustea, ez bakarrik txirrindularitza, kostatu egiten zaio, ez du ikusten. Hori da lehenengo puntua, baina uste dut telebista kateek eta antolatzaileek estrategia bat egin dezaketela jendea txirrindularitza ikustera bultzatzeko, eta hor ere du diru Klasiketan Flandes eta hauek denak antolatzen dituztenak. Aurten erabili duten estrategia da mutilen ondoren



neskena botatzea. Eta horrekin lortu dutena da mutilak ikusten hasten direnek, gero esatea: «Ea zer dagoen». Eta neskak ikusten bukatzea. Emaiza oso onak lortu dituzte, pila bat jendek ikusi du eta hori da nire ustez ekitatea. Berdintasuna bultzatzea estrategia desberdinak erabiliz.

Kasu honetan zer gertatu da Giroarekin? Txirrindularitzan gehien mugitzen duen lasterketa dela Tourra, eta nesken Giroak horrekin bat egitea... Ba estrategikoki ez digu batere mesede egiten. Bestela ni seguru nago Giroa jendeak ikusiko lukeela. Beste pauso bat eman behar dela? Argi dago, baina kasu honetan estrategikoki huts handia egin dute.

Tourra Euskal Herriatik pasatu da, baina gero, Gipuzkoan, gazte mailako lasterketak bertan behera geratu dira. Txanponaren bi aldeak dira?

Bai, alde batetik, ondo iruditzen zait Tourrak berak eta Go-

«UCI maila Kontinentalako izateko, gutxieneko batzuk exijituko zaizkie: soldata bat izatea, talde teknikoan zuzendariek eta mekanikoek soldata bat izatea [...] Neurri horiek jartzen dituzte, baina ez dute ezer egiten laguntzeko. Txirrindulari asko geratuko gara, eta ni barne, hurrengo urtean agian talderik gabe, eta ez dakigu ezer»

bernuak lasterketan egin duten inbertsioa. Euskal txirrindularitzarentzat eta Euskal Herriarentzat ona da. Zer irudi ikusten ziren, gure kostaldea, gure mendiak... oso harro ikusi nuen Tourra. Jendeari eta munduari erakustea, “begira, hau da Euskal Herria”. Iruditzen zait erakutsi zela identitate bat eta herri nazio bat oso polita dena; eta baita errespetuzko publiko bat ere.

Beste alde batetik, hemen dik urte batzuetara nahi badugu Ion [Izagirre] eta Pello [Bilbao] gehiago egotea, oinarrian lana egin behar da, eta orain gertatzen ari dena da oinarrian ez garela lanik egiten ari. Lasterketak kentzea, motoen loturarekin egon zen arazoa... hori zaindu behar da, eta gustatuko litzaidake Gobernuak horri ere begi bat botatzea.

Emakumezkoen harrobian zuloa ikusten al duzu?

Bai, badago. Txirrindularitza eskoletan hamabi mutil badaude, neska bat egongo da, edo bi. Adibidez, Oriakoan, Tolosan, beti neska asko ateratzen dira; baina, esaterako, Donostiako Irukin badakit haur mailan soilik bat dagoela. Gogoratzen naiz lehen, Gipuzkoako Pista Taldean, hasiera batean kadeteentzako eta gazteentzako eskola klub bat ateratzea, eta Gipuzkoako txirrindulari guztientzat ateak irekita zeudela, denok hor egoteko. Gipuzkoako Aldundiak baliabideak jartzen zituen neska guztiak hor hazteko, baina hor ere klub arteko gerra bat egoten da, eta batzuetan falta dena da denak norabide berdinean aurrera egitea. Niri orain gustatuko litzaidake laguntza ematea, eta prest nago hurrengo urtean eskoletara joateko. Erreferen-

teak falta dira. Ez da berdina ikastolara etortzen zaizunean gizonatzeko ziklista bat, urruti ikusten duzuna eta ez dena guztiz zure erreferentea, edo etorri eta esatea: hau neska eta profesionala da. Erreferentzia guztiz aldatzen da. Hori aldatu behar da eta nire laguntza txiki bat izan daiteke hori, eta saiatuko naiz horrelako gauza gehiago egiten.

Klubena aipatu duzu. Euskal Herrian hiru daude: Laboral Kutxa, Sopela eta Bizkaia Durango. Denak indarrak batuta hobe izango litzateke?

Bakoitzak bere interesak dauka. Noski, egongo nintzateke horren alde, baina bakoitzak bere interesak ditu. Baliabide gehien dituen Laboral da, baina hurrengo urtean agian Sopela edo Bizkaia desagertu egingo dira, ez dakit. Batzuetan hainbeste talde egotea ez da beharrezkoa, behar dena da talde bat eta nahikoa izatea. Argi dago Bizkaia Durango talde euskalduna dela, baina bi euskaldun bakarrik gaude oraintxe, eta hori horrela da. Sopelan ere ez dakit zenbat euskaldun diren, baina gutxi.

Profesionalak ez diren taldeek ere egon behar dute, eta nesketan ez da inoiz argi egon zer den profesionala eta zer den amateurra. Profesionala nintzenean ere Espainiako Kopan eta Euskalduna korritzen nituen, eta orain ez, baina lehen bai. Mutiletan amateurre zarenean amateur mailako lasterketak korritzen dituzu eta profesionaletara salto egiten duzu, eta kito. Baina nesketan ez dago argi. Adibidez, Zatika bezalako nesken talde bat, ez dena profesionala, horrelako taldeak behar dira. Eta lan oso ona egiten dute, baina laguntza behar dute.